

Agotak

Berdintasunaren alde borrokalari



Talde lana

Bilduma: Saiopaperak-Pentsamen.Gizartea, 39

Formatua: 170 x 240 mm

Orrialdeak: 256

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2024-03-01

ISBN-a: 978-84-9109-667-2

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

19,00 €

Agoten historia antropologiaren ikuspegitik azaldu izan da, gehienbat, kontuan hartu gabe mendeetan zehar jasan zituzten politiken eraginak.

XVI. mendean, Leon X.a aita santua eta Karlos V.a enperadorea haien alde jarri ziren Espainiaren eta Frantziaren artean izandako istiluetan, baina ondoren ahaztu egin zituzten.

XVII. mendean, Frantziako Luis XIV.a *Eguzki Erregeak* ere adierazpen hau egin zuen: «[...] Badira biztanle batzuk nolabait esklabo bezala tratatuak, lanbide batzuei lotuak, [...] beste gizakumeen salerosketatik bananduak, [eta] *christians*, agot, kagot eta kapot izenez ezagutzen direnak, jakin gabe zergatik bereizten diren horrela, gure erreinuko legeen aurka [...]». Baina hitzak hitz, ez zuen konpondu agoten aurkako gogorkeriarik.

XIX. mendean, Nafarroako Gorteetako 1817ko Legeak honela zioen: «[...] Gure Erreinuan badira, asko ez badira ere, Agot deitzen dieten jende batzuk. [...] Ustekizunek eta tradizio baldarrek eragin dute orain arte jasan dute mespretxua. [...] Eta esan ere esan daiteke harreman sozial eta zibiletatik ere baztertuak izan direla. Baina guk ez deritzogu zuzena. [...] Agotak Nafarrak dira, besteak bezala». Hala ere, ez zen konpondu Agoten giza egoera.

Idazlan honetan, ordea, Erroma, Frantzia, Ingalaterra eta Alemania aldeetako politikarien nazioarteko handinahikeria zapaltzaileen aurka egin ziren herri aldarrikapenen artean jartzen dira Agotek «berdintasun eskubidearen» alde hartutako jokabideak.

ISBN: 978-84-9109-667-2



9 788491 096672

Egileak



Josu Legarreta Bilbao (1948)

Filosofian lizentziatua, Valentziako Unibertsitatean. Eusko Jaurlaritzan kargu hauek izan ditu: Kultura eta Turismo Saileko Euskararen Sustapenerako zuzendaria (1985); Diaspora eta Garapen Lankidetzarako zuzendaria (1991); Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako zuzendaria (1999-2009). Haren zuzendaritzapean argitaratu ziren *Urazandi* bilduma (29 tomo) eta *Derechos de los Pueblos Indígenas* (1998). Liburu hauen egilea da: *Desde el futuro – Nacionalismo es más democracia* (2004); *Sentimientos compartidos* (2011); *Udazkenean aske* (2015), eta *La Cooperación Vasca al Desarrollo* (2016). Eta egilekide beste hauetan: *Un nuevo 31: ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo* (2007); *País Vasco, ¿un nuevo Estado?* (2013); *Somos Vascos-Argentinos* (2016); *Adiós, Madre Patria* (2017) eta *Euskal-Echea, Proyecto Educativo de Emigrantes vascos* (2022).



Xabier Santxotena Alsúa (1946)

Sukaldari, eskultore eta olerkari. Hiru museo sortu ditu Teresa Lafraguarekin: Gorrienea Etxe Museoa eta Santxotena Parke Museoa (biak Bozaten, Nafarroan), eta Santxotena Tailer Museoa (Artziniegan, Araban). Gorrienea Etxe Museoa historia, artea, tradizioa eta etnografia hartzen ditu barnean; Santxotena Parke-Museoan arteak naturarekin bat egiten du (Euskal Herriko mitologia). Museoetan ikusgai daude haren eskulturagintzako obrarik gehientsuenak; 1969an hasi zen eskulturak egiten, eta Jorge Oteiza izan zuen irakasle eta gainbegirale. *El Universo Santxotena 1970-2003* liburuan biltzen ditu denbora horretan egindako lanak. Bere artelan batzuk nazioarteko erakunde garrantzitsuetan daude: Vatikanon, El Salvadorreko UCA Unibertsitatean, Bogotan eta Genevan.